

# GAVON-SARIAC

EDO

AURTENGO GAVONETAN,  
Azcoytico Eleiza Nagussian Cantatuco  
diran Gavon-Cantaac edo  
Otsaldiac.

*Puer natus est nobis,  
Venite adoremus.*



AZCOYTIN

---

Misericordian MDCCCLXII.





AZCOYTICO MISERICORDIACO<sup>3</sup>  
Ama Virgiña Soledadecoari.



ANDREA:



ZURE MENDE GO-  
zoan vitzeco zori ona degunoc, zure  
mendean, ta egapean ipiñi ere beardi-  
tugu gure gauza guztiac. Argatic gaur

A 2

arguie-

arguierazotzen degun papelcho au , zure mendean ipintzen degu , ta ala artu ere beardezu zuc ; bada batetic gurea da , ta bestetic guc gure ongiñai erac eguitendiscuen onguiteac gatic eman nai diegut Saribat da : ta avec zure escuetatic bialtzen dizcuen azquero veren onguite-ac , ta ondassunac , esca orietatic biurtu ere nai diegu Sari-au. Artzazu bada gure Ama gozoa nai oi dezun ongiroarequin Papelcho au , eman eguiozu zure gracia , ta adierazo eguiiez gure Ongiñ guciai gure vorondate ona , ta ecin beste modus pagaguitzaqueala ezpada arequin , ta zuri otoitz zeac zure Seme fauna gandic erdetsi dessazu la aientzat gucientzat , ossassuna , beak quea , ondassunac Mundu onetan , zure ume surchoetan gastaditzaten , ta bestean seculaco vicitza : A la escatzen dizu Andrea zure oñetan humilqui auspeç etziñic. Misericordiaco Echeac.

# LUISA MISERICORDIA COAC<sup>5</sup>

Onguiñ guciai Gav-on, Urte-on, ta  
berri-on.

**N**Ere viotzeco Onguincho maiteac. Ygaroco urtetan gavonsaria franco eman badidazue ere , orra aurten aurrea artuta , nun neuc ematendizuedan : ; Ta nolacoa à la ere ? Zuec gueienean gavon eguiteco azaburubat , edo bacallao bustan batequin asquidatu , ta cumplitudezue nerequin ; baña nic zuentzat berariaz imprimierazo ditudan Cantacho , edo Otsaldi eder auequin erregalatzen zaituet.

Oraiñ zuec essangodezue cera petec, edo eroaldic emandidan onetaraco ? Ara bada , adiesazue.

Ygazco Gavonetan ecus sinituan gu-re echean maquiñabat Gavon Canta im-primitu : batzuec Bilbaocoac cirala , bes-teac Madril coac , Carizcoac , ta eztaquit


nun an urrutietaco batzuec ; ta adios  
 nun, berealaje gogoac emancidan cer  
 ; beste iñun diran Eleizaac imprimierazot-  
 zen ditue ateratzen dituen Cantaac,  
 ( azquonic Bilbaoco San Praiscuco Prai-  
 lle gojoetaraño ) ta gure Azcoitico Elei-  
 zaederrean cantatzen diranac, illumpean  
 guelditubeardeve ? Nundic nora ? Ezde-  
 ve veste erdera mordollosco avec aim-  
 bat mereci ? Ez bada , Jaincoac naiba-  
 deu , ta datorren urtean vici banaiz , so-  
 ñean daramadan gona au salduco badet  
 -ere , imprimitu bearco deve Deamuchoe-  
 tan. Orrabada esan da eguin nun im-  
 primierazo ditudan aurten gure Ascoitico  
 Música Aingueruscoac Cantatuco di-  
 stuan iru Canta aldia.

Jaqin ere naico dezuenorzaz va-  
 liatu naizan Coplaac ta veren soñua ate-  
 ratzeco , ta jaquin gura gueieguicho ba-  
 -da ere , ez dizuet ecer ijildu nai. Co-  
 praric gueienac nere burucoac dira ; ta  
 bost

bost gaukela , ta izerdi gozo costa bazaitzitere , ondo empleatutzat ematenditut diranaç : Eguia da ( ezdiot inori ecer quendu nai ) Martin beltz guislagajoac messederic asco eguiñic lagun eguinda batez ere Seguidilla , ta araco Aria edo Copra andi aetan , bada secula alacoric nola ecussiere ez nevan ecin asmatu nevan ; ta are berriz , nola inunciac eguiten ere daquian , asco daqui , ta guizon jaquintzubat da. Sofiua edo Soplea ezda nerea , ezdaquit orren bes-te ; baña Provincian diran Maissuric pamatu enai eraguindiet. Melon anchinaco Organista buapo arc , ta Lorencho danchariac biac alcar arturic atera deve.

Ala ere ezdide cantatzen ventajaric eramango ez bataç , eta ez bezteac ; ta ala icassi nai devan gucia ez dauca ni gana etortzea baño , ta nic berrealaje eracussicodiot ; bada eztarri garbi

bi garbia ezbendet ere , belarriac galantac ditut. Onen besterequin agur ; boda Campaeac badarauntza ya , gavon eguiteco , gure deiez.



**LENEN.**

---

## LENENGO OTSALDIA.

### *TONADILLEA.*

**S** Eculaco icaraturic  
nago icussi dedanaz;  
ezbaitdu iñorc finistuco  
bacarric nere eslanaz.

Bada ni ere  
neure icusiric  
egon naiz ecin  
finisturic.

Gure Errico sartzayeran  
dagoan Abel-eche ura  
aiñ dago argui-a , ta ederr-a  
cer dirudi Cerua.

Baña au ezda ecerere  
beste gauze en aldean  
ez da ez ain beste mirari  
ecussi inoz lurrean.

Bada ni ere. &c.

Aditu nai ditu ~~stenac~~  
 jarvite nere aldean  
 esango ditut diranac  
 seguidilla ~~cho~~ auetan,  
 Bañ utzibulla  
 alde batera  
 chit , chit , ya noa  
 abiatzera

*Seguidillaac.*

**A** Urcho zoragarribat  
 or Portalean  
 otzac quil quil quil datza  
 lasto gañean.  
 Ahi aur ederra !  
 Ahi aur guria !  
 Ahi aur gozoa !  
 Ahi aur eztia !  
 otzac quil quil quil datza  
 lasto gañean.  
 Belen gustian

estute

estute iñun aurquitu  
osturican.

*Ahi aur ederra. &c.*

Asto Idibatzuec  
etziñic auspaz  
cerbait berotzendute  
veren arnassaz.

*Ahi aur ederra. &c.*

Erruquiago  
dira Avereac verac  
guizonaz baño.

*Ahi aur ederra. &c.*

Chit emacume ederbat  
alboan jarrita  
zoro biurturic dago  
ari beguira.

*Ahi aur ederra! &c.*

Bai, biac ere  
ederrean alcarren  
antza badeve.

*Ahi aur ederra! &c.*

Andre eder au aur onen

Ama andre izanic,  
jaiozanean becela  
dago orregatic.

*Ahi aur ederra. &c.*

Cer miraria!

Ama izanic, donzella  
bait da garbia.

*Ahi aur ederra! &c.*

Aur eder onen Aita  
ez da guizona  
da Espiritu garbibat  
da Jaungoicoa.

*Ahi aur ederra! &c.*

Argatic bada  
mirari aiñ andiau  
guertatu bait da.

*Ahi aur ederra, &c.*

Maiz ecussi dezute  
Cristal garbian  
no la sartu, ta erten  
oidan arguia  
*Ahi aur ederra! &c.*

Auf-

Aussiric gabe,  
ta loirican bateré  
utziric gabe.

*Ahi aur ederra! &c.*

Guissa artan Andre onen  
Savel garvian  
Sartu, ta erten izanda  
Jaincoaren itza.

*Ahi aur ederra! &c.*

Aren guissara  
manchia bague, ta ossoric  
guelditzen dala.

*Ahi aur ederra! &c.*

Agurecho bat ere  
an dago aurchoaz  
ecin dauca negarra  
pozaren pozaz.

*Ahi aur ederra. &c.*

Yñoiz malcoac  
oi dira farā baño  
gozoagoac.

*Ahi aur ederra! &c.*

Jau-

Jaunac escogituric  
vere ordecotzat  
aurrac aita ezbodu ere  
dauca artacotzat.

Ahi aur ederra! &c.

Sori onecoa  
izatea alaco aurraren  
aita ordecoa.

*Ahi aur ederra! &c.*

Beste guizacumeric  
aurquitzen ezda  
aurcho onen compaňia  
eztitzu onetan.

Ahi aur ederra! &c.

Mundu zoroa!  
ezdu secula jaquin  
cer dan gauza ona,

*Ahi aur ederra. &c.*

Bañan ez zaio falta  
ez compaňia  
bada berequin dauca  
Ceru gucia.

Ahi

Ahi aur ederra! &c.

Argatic nasqui  
dabil Mundua igasssi  
toqui artatic.

*Ahi aur edetra! &c.*

Aingueruac cantatzen  
diote aurraldi

*Gloria Ceruetan*

*Faungoicoari*

Ahi aur ederra! &c.

*Eta baquea*  
*guizon on gucientzat*  
*berriz turrean.*

*Ahi aur ederra! &c.*

Nai dutenac etorri  
betoz lastercá

*Musica Cerucoau*  
aditutzena.

Ahi aur ederra! &c.

Ta acquin batera  
gure vorondate ona  
cracufera.

Ahi

*Ahi aur ederra! &c.*

Goacen , ta vere oñetan  
humilqui etciñic  
alabatuco degu  
viotz gucitic.

*Ahi aur ederra! &c.*

Modu onetan  
ezdigù ez ucatuco  
deusere ecertan.

*Ahi aur ederra! &c.*

Escazaio gun bada  
lenda bician  
ezgaitzala arren utci  
guere vician.

*Ahi aur ederra! &c.*

Gurequin dela  
ez guera ezerren bildur  
naiz dena dela.

*Ahi aur ederra! &c.*

Orain aur maite onequin  
ongui baguera  
guero cramango gaitu

veraz

veraz batera.

Ahi aur ederra! &c.

Vere Aita gana  
seculaco vicitza  
ta Gloriara.

Alabitz.

---

## BIGARREN OTSALDIA

Aria

*CARIDADEFAREN EDO EGUI-*  
*azco Amorioaren avan.*

**A**U egun zoratzecoa!  
Cer poz andia!  
Cer atseguiña!  
aiñ da poz mere gogoa  
ccin da czdaquit cer eguin.

*Recitatua.*

**J**aungoico andiaren  
Escu indarzuac sortutaco guciac,  
C Eguz-

Eguzqui eder , Illargui , ta Izar arguāic  
**Cerubac** Lurra , ta Ychasso zavalac  
 atozte atozte ni gana ceranac

(a) Psalm. <sup>18.</sup> Cantadezagun gucien artean (a)

Jaungoicoaren gloria gaurco gavean.

Mendi portuzac aariac becela , danza :

(b) Psalm Munchoac salto bildotzchoen guisara (b)

<sup>113.</sup> Ibar , ta Madura lau , basso ta chara ac  
 atozte atozte ni gana ceranac  
 Canta dezagun gucien artean  
 Jaungoico aren gloria , gaurco gavean.  
 Arbola , Orritzu verde , Trebola fiñac  
 Larrosa , Clavelina , eta Jazmiñac  
 Ybai Zaval Ossiñez betetacoa  
 Erreca berrichucho itz jarioa,  
 itz batean Cerua vere arguaquin  
 Lurra , ichassoaz , ta ur guciaquin  
 Ybaiac , Arbolac , Mendiak , eta Yzarrac  
 atozte atozte ni gana ceranac  
 Cantadezagun gucien artean  
 Jaungoicoaren Gloria gaurco gavean.

*Arriachoa.*

**E** Guzqui andia  
 Yzar arguia  
 Lastotan dautzan  
 aurcho orrec  
 fortuac cera,  
 ta orren mendera  
 vici artcan  
 zaude zuec.

Ur asserrea  
 Mendi esquerquea  
 Lastotan dautzan  
 aurcho onec  
 Aingueldirican  
 ceuen toquian  
 lecu batcan  
 zausca zuec.

Au alá izanic,  
 aur biurturic  
 gaurco gavean  
 daducat nic

guizon tristéa  
penas betéa  
libratu dezan  
pecatutic.

Nic ecarriric  
guizon eguiñic  
nic gaur bearde  
Cantatu.

Vere etorrera  
guizon artera  
eta à la zucc  
lagundu.



IRU.

---

## IRUGARREN OTSALDIA.

*Arzai canta.*

*Adiraquia.*



Uciac daquite nola Aingueruac  
gastigatuzieten Belen inguruco  
Arzaiay, Munduaren Salvatzaillea  
jaiozala Estrabi batean (a)

(a) S. Luc.  
Cap. 20.

Evangelioco paslarte onetatic , ta  
beste toqui ascotatic nun J. C. guracve-  
re burua Arzaizat izendatzenduen , ar-  
tu izanda otsaldi edo canta onen irudi-  
dea , ceinean asmatzandan , Belen ingu-  
ruco Arzaiacjaquiñic Arzai berribat el-  
dudala Abel echera , alcar arturic diaze-  
la ongui eterria ematera. Onetaraco Tir-  
sis , ta Filis lagun gustietatic gasteen ai,  
ta bocic onenac dituztenai , encargatzen-  
dite , ongui eterria gucien izenean ema-  
tea , ceintzu ec au eguitenduten canta  
ber-

berri onetan , nun Arzayaren egoqui-quilde edo *Metaphora* ren azpian estaltzen diran Jesu-Christoren vicitza , ta gure Fedeco Misterioric nagussienac.

*Arzai Corua.*

**O** La goacen Arzaiac  
Abel-echera  
Lagun berribat  
essagutzera :  
ta ongui etorri on-bat  
ematecot-zat  
gucien partez  
Tersis zuc , ta Filis-ec  
canta , canta berribat.

*Tirsis , ta Filis-ec biac.*

Baña contu zuec ere laguntzea  
Estrivillo batèz gucien artean  
*Guciaco:* Ordu onean.

*Ter-*

*Tersis, ta Filis-ec*

Arzay zoragarria  
ona emen guerà,  
ongui etorri on bat  
zuri ematerà:

Ezda Arzayric guelditu  
inguru gucion,  
diranac emen datozi  
bada elcarren leyan.

*Eranzuera.*

Eranzun bada lagunac  
essandezun bezela,  
jaquin dezan, etortze oncez  
nola gu poztu gueran:

Ea bada canta laster  
*Guciac.* Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai,  
*Byac...* Ea bada canta laster  
*Guciac.* Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai,  
Ongui etorri zerala

Arzay

Arzay pare gabea,  
gurequin bearco dezu  
beti secularean.

T. ta F.

Artaldeac bacarric  
Chabolac zai gabe,  
utciric gatoz , baña  
arduraric gabe:  
Pistietatic dala  
naiz Lapurrestatic  
zuc gordeco dituzu  
dr zautzan lecutic.  
Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Etsaya alferric dabil,  
Leoia becela,  
inguruca , uztez , cerbaiz  
artuco ducla : (a)

(a) S. Ped. Ep.  
I. Cap. 50.

Ju-

Judaco Leoiaaren (b)  
beguiratzun batec,  
utci crassoco disca  
laſter baster avec.  
Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Zu aguertuarequin,  
eguingo dute iguez  
gure Etsay guztiac  
cmendic bildur-ez:  
Euren damu gaistoan  
ujatuco dira,  
ta Infernuetaraño  
ondatuco' dira.  
Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Arzayzat zendozena  
ainciña guenguiian,

D

Icn

len agoco guizonay  
maiz aditurican :  
Ta ain maite art-aldea  
izango dezula  
nonta azquenic vicitza  
costaco zaitzula.  
Erantzun bada lagunaz. &c.

T. ta F.

Ardiac duten sarna  
quent-ceco jaquiñic,  
ez dala Arzayaren  
odola lacoric :  
Etorri, ta egun asco  
passatu bañolèn,  
assico zera dela  
ugariro issurten. \*

circuncisión

Erantzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Amorio andi onec

pare-

parerican ez du,  
*Arzay ona zerala*  
*erraz desaquezu:* (a) (a) S. Juan  
 Orrec ardiac zaitzen Cap. 10.  
 ipinico zaitu  
 ta orrec aien ondoren  
 ecarrico zaitu.  
 Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Bost vider ecustean,  
 lagunac utciric  
 Ardiren bat diala  
 vide oquerretic:  
 Galdudedin bildur-ac,  
 ofta anchituric,  
 biurtuco dezu atzera  
 lèpoan arturic. (a) (a) S. Luc.  
 Eranzun bada lagunac. &c. Cap. 15.

T. ta F.

Oguei , ta amairu urte

D 2

pena

pena andiz beteac,  
 emango ditzu, avec  
 ondo gordetzeac :  
 Ta aien cabuan guero,  
 esquer ematea,  
 izango dà gogorqui  
 vicitza quentzea. \* Passio-  
6.  
 Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Orduan cumplidedin  
 aincinaco itza  
*Arzaya jò, ta Ardiac*  
*banatusco dira:* (a) (2) S. Marc.  
Cap. 14.  
 Baña iru egun barru  
 zu pistuco zera,  
 ta bilduco dituzu  
 elcargana ostera.  
 Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

A la cre Aita gana

biur-

biurtu bearco dezu,  
ta art-alde maiteori  
utci naico ezdezu:  
Baña zure amoreae  
asmatuco bait du,  
nola , joan-agatic,  
aiequin guelditu.  
Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

*Mirari etatican* (b)

*mirari andiena* (b) Sto.  
izango da artaraco Tom.Serm.  
icusico dena:  
Bada oguiaren antfaz  
ostia batean  
gueldituco zerade  
zurc art-aldean. \* Eucbaristia,  
Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

*Emen Cerutic iñoiiz*

aldè

aldè eguin bagueric,  
 e~~g~~ongo zera ardi-en  
 janari eguin-ic : (a) (a) S. Juan  
 Orrela izango zera Cap. 12.  
 beti aien aldean,  
 ariqueta Munduac  
 dirau-an artean (b) (b) S. Math.  
 Eranzun bada lagunac. &c. Cap. 28.

## T. ta F.

Afco ez baliz bezala  
 mirari ain andia,  
 ipinico ere dezu  
 ordeazco Artzaya :  
 Zure Ardiac ongi  
 governatu ditzan, (c) (c) S. Juan  
 ta vide on-etic Cap. 28.  
 erabilli ditzan.  
 Eranzun bada lagunac. &c.

## T. ta F.

Arzay onen mendean

ar-

arquitze ezdiran-ac  
izan bearco dute  
galduac diranac :

Ta ala, Arzay maitea,  
zurequin nai degu,  
ta argan zure orde-a  
esagutzen degu.

Eranzun bada lagunac. &c.

T. ta F.

Arzay onen mendean  
vici, ta ill-co guera,  
joateco zurequin  
Aitaren aldera :

Arren lagun zaquizgu  
au ála cumplitzen  
guero goza zaitzagun  
Ceruetan Amen.

Eranzun bada lagunac. &c.

**COPLA**

---

## *COPLA JOST ALLUAC.*

**E**Sfagundu Munduac  
 Jesus jaio dena;  
 ain dago mudatua  
 ez dirudi lena:  
 Len gucia zan pena  
 negar, nai bagueac;  
 ta orain atzeguin, gusto  
 Algara, farreac.  
 Gorroto, errierta,  
 auciac, ta guerrà,  
 gaitzac, gosse, guezur, ta  
 intencio oquerrá:  
 juanic: yaerdago  
 ecerren bildurric  
 ta à la dago Mundua  
 Ceru bat eguiñic.  
 Abogadu, Escribau,

eta Merioac,  
 Medicu, Barberò, ta  
 Boticarioac,  
 ez dira bear; **cta** argatic  
 izango da farri  
 Hipocrates gajoa  
 sagûen janari.

Ezpataac, Lanzaac, **cta**  
 beste arma guciac  
**crossitzen dituste**  
 Erementariae:  
 ta alferrican ez dodin  
 galdu burnia ura  
 compleatzera diaz  
 gure provechura.

Achur, Burdiñara, ta  
 golde biuturic,  
 Necazari languiñac  
 orgui guiaturic:  
 Emango digu lurrac  
 Garia, ta Artoa,  
 gastaña, sagardoa

ta ardoa naicoa.

Garia , eta Artoa  
merque ta ugariro  
gastanata sagarra  
berriz urte oro :

Ta Ardoac galdurican  
lengo malicia  
ez gaitu moscortuco,  
edan cia , cia.

Ez da ones quero essango  
guezurric batere,  
eguia essango dute  
Dendariac ere :  
Juanda emendic trampa,  
ta fede gaistoa,  
ya ur bague saltzenda  
Tabernan ardoa.

Bassa arteco Pistiaac  
malso , malso eguiñic  
ez dute ya alcar jaten,  
ta ain guichi guizonic :  
Bat eguinic guciac

elcar

elcarren artean  
vici dira etzai gabe  
contentuz baquean.

Otssoa , eta ardia  
Celai zabalean  
farri ecusten 'dira  
biac jolasSean :  
Alberdanian chita  
aizariarequin  
Portuguesa lastanga  
Gastelaubarequin.

Aujen bai dala eguiaz  
dembora urrescoa,  
ta ez len Coplari zarrac  
eraussitacoa :  
Oraiñ aien amessac  
eguia sorturic  
ecusten adiguera  
pozez zoraturic.

Baña canta berria  
gueicho luzatu da  
nere-eztarri tristea

y à urratuda :  
Nai agodet issildu  
catarratu baño  
Agur nere genteac  
urrengo urterano.

# FIN.

